


# © Hitzontzi ©

## Zergatik erortzen diren lorontziak

Leire Bilbao



—Babesera! —oihukatu du.

Eta berehala harri koxkorraren atzean ezkutatu da. Ureztagailua hurbiltzen ikusi du zizareak. Eta ureztagailuaren atzetik atzamar lodi batzuk eta atzamar lodien atzetik, amantal koloretsu bat eta amantalarren atzetik amona Margarita.

Zizareak babesera oihukatzen duenean, ur parrastada handi bat datorrela esan nahi du.

Zizarea ez da bakarrik bizi lorontzierrian. Urtean behin loratzen den landarea du bizilagun. Eta beraiekin, erdi izkinaturik eta erdi-lo, ibai luzeetan ibilitako harri biribil bat. Baita erle lotsagabe bat ere, lorontzierriko eguneroko turista.

Egun nekatuetan, harriak landareari eusten dio. Egun eguzkitsuetan, landareak itzala ematen dio zizareari. Egun batean bai eta bestean ere bai, zizareak erlearekin diskutitzen du. Egun egunerotan, erlea landarearen inguruan ibiltzen delako, honi lorea noiz aterako. Eta oso egun gutxitan hitz egiten du harriak.

Amona Margaritaren pauso narrasak lurrikara txikiak dira balkoian.

—Nire landare maitea, ze koloretako lorea aterako duzu udaberri honetan?

Amona Margarita harro dago bere balkoiaz, auzoko balkoirik dotoreena duela pentsatzen du ahozgoran. Trapuarekin garbitzen dizkio landareari hostoak. Maiztasunez aldatzen du lurra, ongarria ere botatzen dio noizbehinka. Zizareak gaizki

pasatzen du horrelakoetan. Ez da kontu erraza amonaren atzamar lodietatik ihes egitea.

Amonaren balkoipean beste lorategi bat dago. Handia, zabala, ikaragarria... udaletxeko lorazainek urtean bi aldiz kimatzen dutena. Zizareak hari begira pasatzen du eguna, lorontzi ertzetik burua aterata.

—Begira ze lorategi ederra dugun hor behean. Ez al zenuke bertan egon nahi? —galdetzen dio landareari. Eta behera begiratzeko keinua egiten du landareak.

—Uiii, ezin dut begiratu ere egin. Badakizu bertigoa dudala hemen goian nagoenetik.

—Begira ze lorategi ederra dugun hor behean. Ez al zenuke bertan egon nahi? —galdetzen dio ondoren harriari.

—Badakizu ezin naizela neure kabuz mugitu —erantzuten dio harriak.

—Begira ze lorategi ederra dugun hor behean. Ez al zenuke bertan egon nahi? —galdetzen dio azkenik beti lorearen ondoan bueltaka dabilen erleari.

—Lorea dagoen edozein lekutan egon nahi dut nik —erantzuten dio erleak.

Egun guztiak antzerakoak dira lorontzierrian, lorea ernetzen den eguna izan ezik. Baina zizarea aspertzen hasia dago jada.

—Beheko lorategira iritsi behar dugu hala nola! —oihukatu du bat-batean.

—Geure buruaz beste egiteaz ari zara? Eguzkiak gehiegi berotu dizu burua —erantzun dio harriak.

—Zu izango zara, minik hartuko ez duen bakarra? —erantzuten dio

harriari—. Ez al duzu mugitzeko aukera gehiago izan nahi? Lorategietara, hondartzetara edo berriz ibaietara iritsi nahi?

—Baina zertarako? —galdetu du erleak.

—Lur gehiago izan dezagun gure gustura egoteko. Ez gaitzen balkoi bateko lorontzi batean egon gure bizi osoan. Ez zara, ba, zure loreari beste erle batzuk inguratzeko beldur izango?

—Nik lur berriak probatu nahi ditut —esan du azkenean landareak.

Eta denak pentsakor geratu dira: Landarerik gabe, ez dago lorontzierririk.

Uste ez zutenean, amona Margaritaren pausoak sentitu dituzte. Gerria makurtu eta lorontzia hartu du eskuetan esfortzu handiz.

—Lurra aldatuko dizut, nire landare maitea —xuxurlatu du betaurrekoak ia lorontzi barruan dituela—. Ene! —oihu beldurti bat atera zaio—. Zizare bat daukazu eta!

Ezkerreko eskuarekin zizarea kentzera joan den unean bertan, inoiz baino zaratatsuago eta eztena agerian duela, erlea agertu da. Amonaren inguruan bueltaka hasteko, bira bakoitzeko gero eta abiadura biziagoan. Amona burua mugitzen hasi da erlea uxatzeko, baita sorbaldak ere erlea

haizatzen ez duela ikusita. Gerria jiratzen hasi da ostean, ziba bat bezala gorputz osoa dantzan jarri duen arte. Orduan, irrist egin dio lorontziak eskuetatik eta hegan atera da... lorategi handian lurra jo duen arte.

Eta harriak, zizareak, landareak eta atzetik erleak lorategi handiaren hainbat puntuetan amaitu dute, sakabanatuta baina aske.

